

XEDAPEN OROKORRAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

4446

154/2020 DEKRETUA, irailaren 22koa. Horren bidez, behin betiko onartzen da Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.

1.– Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu zen uztailaren 27ko 121/2016 Dekretuaren bidez. Lurralde-plan partzial horrek antolamendu integrala ezartzen du Eremu Funtzional osorako, eta Andoain, Astigarraga, Donostia, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta eta Usurbilgo udal-mugarteak hartzen ditu.

2.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak sustatutako aldaketa honen helburua da Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzian paisaiaren zehaztapenak sartzea. Aipatutako zehaztapenak, eremu funtzionalako paisaiaren katalogoko paisaia-kalitatearen helburuen garapena, katalogo horretako paisaia-unitateak eta paisaiaren interes bereziko eremuak Lurralde Plan Partzian txertatzen dira, gomendio izaera duten xedapen gisa.

3.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko apirilaren 20ko Aginduaren bidez, aldaketa hau ez-funtsezkotzat jotzea xedatu zen. Aldaketa hau izapidetzean, irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan aurreikusitako izapideak bete dira. Dekretu horrek Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, Lurralde Plan Partzialetan eta Lurralde Plan Sektorialetan funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen du.

4.– Jarraitutako ingurumen-ebaluazioaren prozedurari dagokionez, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez, hizpide dugun Plan Partzialaren Aldaketaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zen, eta haren edukia Planaren aldaketa honi erantsi zaio.

5.– Lurralde Plan Partzialaren aldaketak I. eranskinean jasotzen ditu antolamendu-arauak, eta II. eranskinean, ingurumen-alderdien integrazioari buruzko laburpena, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

6.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailak du eskumena planaren aldaketa honen behin betiko onarpena Gobernu Kontseiluari helarazteko, irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 4.7 artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Lurralde Antolamenduko Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen da).

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko irailaren 22an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Behin betiko onartzea Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei buruzkoa. Horren bidez, antolamendu-arauak dekretu honen I. eranskinean jaso dira.

2020ko urriaren 23a, ostirala

2.– Era berean, II. eranskinean, ingurumen-alderdien integrazioari buruzko laburpena argitaratzen da, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ingurumen-ondorioen jarraipen-neurriak barne.

3.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailaren egoitza elektronikoan eskuragarri daude Lurralde Plan Partzialaren aldaketa hau osatzen duten dokumentuak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA, IRAILAREN 22KO 154/2020 DEKRETUARENA, DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA, PAISAIAREN ZEHAZTAPENEI DAGOKIONEZ, BEHIN BETIKO ONARTZEN DUENA

ANTOLAMENDU ARAUAK

1. artikulua.– Paisaiaren zehaztapenen xedea.

- 1.– Paisaiaren Zehaztapen hauek Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Paisaiaren Kalitateko Helburuak (PKH) garatzeko xedea duten aholku-izaerako xedapenak dira.
- 2.– Paisaiaren Zehaztapenak Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Paisaiaren Katalogoan oinarritzen dira.

2. artikulua.– Paisaia Unitateak.

- 1.– Donostialdeko E.F.ak 29 Paisaia Unitate (PU) bereizten ditu, paisaia aldetik homogeenak diren esparruak, gainerako lurraldearekiko nortasun bereizia dutenak, eta horien gainean egokia da paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko araubidea finkatzea.
- 2.– Eremu funtzionalaren 29 Paisaia Unitateak honako hauek dira:

KORRIDOREAK (CO)

- CO.1 ORIA BEHEKO KORRIDOREA
- CO.2 ANDOAIN - URNIETA KORRIDOREA
- CO.3 URUMEA BEHEKO KORRIDOREA
- CO.4 OARSOALDEKO KORRIDOREA
- CO.5 IRUNGO KORRIDOREA ETA HIRIGUNEA

ITSASBAZTERREKO LERROKADURAK (AC)

- AC.1 MENDIZORROTZ (IGELDOKO KOSTALDEA)
- AC.2 MENDIZORROTZ - BORDATXO MENDIAK
- AC.3 JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (KOSTALDEA)
- AC.4 JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (BARNEKALDEA)

ITSASERTZEKO BADIAK ETA HIRIGUNEA (BU)

- BU.1 DONOSTIAKO BADIA
- BU.2 DONOSTIAKO INGURABIDE PERIFERIKOA
- BU.3 PASAIAKO BADIA
- BU.4 TXINGUDIKO BADIA

ITSASBAZTER-AURREKO MUINODUN ERLIEBEAK (PR)

- PR.1 ORIA ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEA
- PR.2 OIARTZUN ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEA

ITSASADARRAK ETA PADURAK (RM)

- RM.1 BIDASOAKO ITSASADARRA ETA PADURAK
- RM.2 ORIAKO ITSASADARRA

MENDI-OINEKO HEGALAK ETA HARANAK (P)

- P.1 JAIZKIBELGO MENDI-OINA
- P.2 OIARTZUNGO HARANA

BIGARREN MAILAKO ELEBAZIOAK (ES)

- ES.1 BURUNTZA - SANTA BARBARAKO MENDIAK
- ES.2 GOIBURUKO MUINOA
- ES.3 SANTIAGOMENDI - SAN MARKOKO MENDIAK
- ES.4 URKABE - SAN MARTZIALGO MENDIAK ETA HARANAK

BARNEALDEKO MENDIAK (M)

- M.1 AIAKO HARRIA
- M.2 AIAKO HARRIAREN IPARRALDEKO MENDIAK
- M.3 AÑARBE MENDIA
- M.4 URUMEA MENDIA
- M.5 ADARRA MENDIA ETA LEITZARANGO HARANA
- M.6 ANDATZA MENDIA

3.– Paisaia Unitateen mugatzea Antolamendu Arauen eranskinaren «Paisaia Unitateak» mapan grafiatu da.

3. artikulua.– Paisaia-interes bereziko eremuak.

1.– Paisaia-interes bereziko bi eremu (PIBE) tipologia nagusi bereizten dira, aldi berean esku-hartzeko bitartekoa ezartzeko lehentasunaren arabera sailkatzen direnak:

A.1 Paisaiaren antolamendura zuzendutako paisaiaren ekintza-planak behar dituzten PIBEak (leheneratzea, hobetzea edo eraldaketa).

A.2 Paisaiaren kudeaketara zuzendutako paisaiaren ekintza-planak behar dituzten PIBEak (babesa, balioan jartzea edo egokitzea).

2.– Leheneratze, hobetze edo eraldaketarako proposatutako PIBEak.

a) Ikus-inpaktuen integrazio edo atenuazio bidez, edota osagai nagusien paisaia-hobekuntza edo balioan jartze edo leheneratze bidez paisaiaren antolamendura zuzendutako paisaiaren ekintza-planen lanketa behar duten eremuak.

Honako Paisaia Unitate hauei dagokie:

- DONOSTIAKO INGURABIDE PERIFERIKOA.
- ORIA BEHEKO KORRIDOREA.
- URUMEA BEHEKO KORRIDOREA.
- OARSOALDEKO KORRIDOREA.
- IRUNGO KORRIDOREA ETA HIRIGUNEA.

b) Indarrean dauden edo lantzen ari diren planen bidez antolatzen ari direlako, paisaiaren ekintza-planen lanketarik behar ez duten eremuak, nahiz eta euren paisaiaren narriadura handia erakusten duten.

Eremu hauetarako paisaia-hobekuntzarako aholkuak ezartzen dira, eragiten dieten planetan kontuan har daitezten. Honako hauek dira:

- JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (BARNEKALDEA)
- PASAIAKO BADIA

Kasu hauetan, proposamenak ez du dagokion PEParen idazketa behar, nahiz eta komeni den plan desberdinak berrikustea, ezarri nahi diren neurriekin proposatutako PKHak betetzen direla ziurtatzeko edo, gutxienik, zehaztaperen hauetan aholkatzen direnak bertan txertatuta ekintzen ahalmena zabaldu dadin.

3.– Babeserako eta balioa emateko proposatutako PIBEak.

a) Pertzepzio- eta estetika-ezaugarri bikainak dauzkaten eremuak, hauskortasun edo zaurgarritasunagatik apartak diren eremuak, biztanleriarentzat oso agerian dauden eremuak, edo daukaten kokapenagatik Eremu Funtzionalaren identitatea eratzeke erabakigarriak diren eremuak. Paisaiaren ekintza-planen lanketa behar dute, eta plan hauek haren babesera zuzendutako ekintza multzo bat ezartzeko helburua daukate, eta modu osagarrian, ekintza horien difusio eta balioan jartzeko egokitzera.

- AÑARBE MENDIA.
- MENDIZORROTZ MENDIA (IGELDOKO KOSTALDEA).
- ADARRA MENDIA ETA LEITZARANGO HARANA.

b) Indarrean dauden edo lantzen ari diren bestelako Planen bidez antolatzen ari direlako paisaiaren ekintza-planen lanketarik behar ez duten eremuak, nahiz eta euren hauskortasunagatik paisaia-ezaugarri bikain eta apartekoak dauzkaten eta Eremu Funtzionalaren identitatea eratzen modu erabakigarrian laguntzen duten.

- SANTIAGOMENDI - SAN MARKOKO MENDIAK
- JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (KOSTALDEA)
- DONOSTIAKO BADIA
- TXINGUDIKO BADIA
- AIAKO HARRIA
- BIDASOAKO ITSASADARRA ETA PADURAK
- ORIAKO ITSASADARRA

Kasu hauetan, proposamenak ez du dagokion PEParen idazketa behar, nahiz eta komeni den babeserako figurak eta indarrean dauden edo lantzen ari diren planak berrikustea, paisaiarekin zerikusia duten atalak hobetzeko.

4.– Paisaia-Interes Bereziko Eremuen mugatzea Antolamendu Arauen eranskinaren «Paisaia-Interes Bereziko Eremuak» mapan grafiatu da.

4. artikulua.– Paisaia Kalitateko Helburuak (PKH).

1.– Donostiako (Donostialdea–Bidasoa Beherea) E.F.erako PKHen sailkapen-egitura bi mailatan gauzatzen da:

a) Lehenengo sailkapen mailak baliabide ugarietara txertatzeko bide ematen du, lurralde-espazioen antolamendu eta erabileraren arabera eta jarduera ekonomiko eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesu nagusien arabera:

- Eremu Funtzional osoarentzat izaera orokorra (G).
- Hiri kokalekuak (bizilekutarakoak, industrialak eta zerbitzuetakoak) (U).
- Garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturak (T).
- Erauzketa-lanak, zabortegeak eta hondakinen tratamendu-plantak (EV).
- Nekazaritza-abeltzaintzako erabilerak (A).
- Baso erabilerak (F)
- Ondarea (P).
- Paisaia naturalak (N).

b) Bigarren sailkapen mailan idazpuru bakoitza hainbat kategoriatan zati-banatzen da –Paisaia Kalitateko Helburuen nolakoa zein den-, Paisaiaren Europako Hitzarmenetik eratorritako irizpideen arabera:

- Paisaia zaindu eta mantentzea (C)
- Paisaia berroneratzea (R)
- Paisaia hobetzea (M).
- Paisaiari balioa eta hedapena ematea (PV).

2.– Donostiako (Donostialdea–Bidasoa Beherea) E.F.erako PKHak honako hauek dira:

a) Eremu Funtzional osoarentzat izaera orokorreko PKH.

- G.1 Paisaiaren baliabideari indar handiagoa aitortu, etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean.
- G.2 Hirigintza-arauetan paisaia modu eraginkorragoan txertatu.
- G.3 Donostialdea eremu funtzionaleko paisaiaren balioa hedatu berau zaindu eta hobetzeko bide modura eta garapen ekonomikoaren eragile modura.
- G.4 Hiritarren eskura jarri paisaiarako irispidea eta gozatzeko aukera.
- G.5 Paisaia baliabidearen gaineko zeharkako kontrolak eta azterketa areagotu.

- b) PKH hiri kokalekuei dagokienez.
 - U.C.1 Paisaia-balio handiko hiriguneak mantentzea.
 - U.C.2 Landa guneak mantentzea.
 - U.C.3 Hiri kokalekuetan dagoen landare-paisaia mantentzea.
 - U.M.1 Ikus-kalitate txikiko etxetarako kokalekuak hobetzea.
 - U.M.2 Hiri inguruko espazioen itxura hobetzea.
 - U.M.3 Hiriguneetarako sarbideen itxura hobetzea.
 - U.M.4 Hutsik dagoen lurzoru urbanizatua hobetzea.
 - U.M.5 Industria poligonoen itxura hobetzea.
- c) PKH garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturei dagokienez.
 - I.M.1 Garraio azpiegiturak hobetzea (elementuak eta ikuspegiak).
 - I.M.2 Gordailuak eta energia-garraioen eta telekomunikazioen azpiegiturak paisaian integratzea.
 - I.M.3 Bigarren mailako errepideen ikuspegia hobetzea.
- d) PKH erauzketa-lanei, zabortegei eta hondakinen tratamendu-plantei dagokienez.
 - E.M.1 Harrobi eta zabortegeien ikuspegia hobetzea.
 - E.M.2 Bazter utzitako harrobien ikuspegia hobetzea.
- e) PKH abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerei dagokienez.
 - A.C.1 Paisaian garrantzizkoa den nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia zaintzea.
 - A.M.1 Nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia hobetzea (nekazaritza-industria).
- f) PKH basogintza erabilerei dagokienez.
 - F.M.1 Ikusgarritasun handiko baso-landaketak hobetzea.
 - F.R.1 Formazio autoktonoak berreskuratzea.
- g) PKH kultura-ondareari dagokionez.
 - P.C.1 Ondarea zaindu eta mantentzea: militarra, erlijiosoa, industrial, zibila, etnografikoa eta bide historikoak, paisaia egituratzen duten ardatz diren aldetik.
 - P.M.1 Paisaia aldetik garrantzia duen kultura-ondarea hobetu, zaharberritu eta balioa ematea.
- h) PKH paisaia naturalei dagokienez.
 - N.C.1. Baliabide fisiografikoak mantentzea.
 - N.C.2. Bertako formazio zuhaizkarak mantentzea.
 - N.C.3. Ur-lamina nagusien eta atxikitako landaretzaren paisaia mantentzea.
 - N.C.4. Kostaldeko paisaia bikainak mantentzea.
 - N.C.5. Zuhaitz apartekoak mantentzea.
 - N. R.1 Paisai naturala berroneratu eta hobetzea.

3.– PKH hauek Paisaiaren Zehaztapenetan garatzen dira, eta, era guztitara, hirigintza- eta lurralde-planeamendurako inspiragarri izango dira.

4.– Paisaia-kalitateko helburuak Antolamendu Arauen eranskinaren bi mapa hauetan grafiatu dira: «Paisaia Kalitateko Helburuak I» eta «Paisaia Kalitateko Helburuak II».

5. artikulua.– Eremu funtzional osoarentzat izaera orokorra duten zehaztapenak (G).

1.– Paisaiaren baliabidea indar handiagoz txertatu etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean (G.1), gune horiek, bizitegirako edo jarduera ekonomikoko garapenak edo bestelakoak, LPPen «Hiri Multzoak» edo «Hiri Inguruko Landa Lurzorua» eremuan badaude.

a) Etorkizuneko garapen-guneak eta paisaian negatiboki gehiago eragin dezaketen jarduerak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean paisaiaren baliabidea hasierako fasetik kontuan izan: tamaina handiko garapenak, bai industria nola hirugarren sektorekoak, azpiegiturak edo erauzketa-lanak, zabortegi eta hondakinen tratamendu-plantak. Azterlanaren hasieratik kontuan izan, paisaiaren kalitate txikieneko guneetan edo paisaia-balioen eta beste lurralde baliabideen galera txikiena sortzeko moduan planteatu daitezten.

b) Urbanizatzeko edo eraikitze-lanek hiriguneetako perspektibei edo nortasun edo esanahi handiko paisaiei eragin diezaieten ekidin, paisaian integratzen saiatuz, ingurunearekin harmonian. Aholku honek barne hartzen ditu hiri-, industria-logistika- edo zerbitzu-garapenetatik, baita atxikitako azpiegiturretatik (hornidura sareak, seinaletika, eta abar) eratorritako ikus-inpaktu sinergikoak.

c) Ahal den neurrian populazio-guneen izaera konpaktua mantendu. Guneen mugak garbi zehaztu, guneen hiritar espazioaren hedapen kontrolgabea, erabilera zehaztugabea, gainjarri eta desordenatua galaraziz.

d) Garapen berrietan, eraikitze eredu neurrigabeko errepikapena mugatzea aholkatzen da, eraikingintza-tipologia eta arkitektura aniztasuna sustatuz, eredu tradizionalak errespetatuz.

e) Hiriguneetako inguruetan etorkizuneko garapen-guneen paisaia-integrazioa bermatu. Zentzu honetan, bertan dauden elementu natural eta ondarezkoei balioa emateko eta muga argiak jartzeko. Landa-hiri trantsizioko guneen integrazioaren ildoari jarraituz, landa-eremuetan arau zehatzak finkatzea aholkatzen da, bolumetria, elementu eta akaberei dagokienez, eraikinetan zein inguruko guneetan.

f) Etorkizuneko hirigintza ekintzetan Paisaiaren Integrazio Azterketak txertatu, EAEko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 dekretuan aurreikusten den baliabide gisa. Azken emaitzarekin fidelak izango diren infografia eta simulazioak txertatzea aholkatzen da, eta baita Paisaiaren Katalogoaren emaitzen ondorioekin ebaluaketa eta kontrastea ahalbidetuko duten beharrezko ikuspen-analisiak re: balioak, enklabe eta elementuen gaineko afekzioak, ikuspen-irispidea.

g) Zehaztapen hauek lehentasunez aplikatu beharreko eremu estrategikoak honako hauek dira:

– Lasarte-Oria, Zubieta Goialde eta Aritzeta korridoreko izaera estrategikoko eremua.

– Urumea korridoreko izaera estrategikoko eremua.

– Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremua.

– Txingudiko izaera estrategikoko eremua.

– Pasaiako badiako izaera estrategikoko eremua.

2.– Hirigintza-arauetan paisaia modu eraginkorragoan txertatu (G.2).

a) Garapen berriko eremuetako eraikin berrien diseinuan, kokatu behar duten espazioarekin bat datozen bolumetria, osagai eta koloredun eraikingintza-tipologiak eta egitura morfologikoa sustatu. Era honetara, haien tartekatzea ez du osotasunean paisaia-balioen txikitzea suposatuko eta, kontrara, balioa handituko dio. Zentzu honetan, udalerrri bakoitzak arautegi argi bat eta gomendio zehatzak finkatzea aholkatzen da, eremuko elementu edo balio nagusiak eta gorde beharreko edo garapen berriekin bateragarri egiteko estrategia identifikatzeko.

b) Industria-garapenen kasu zehatzean, aholkatzen da:

- Bizitegi eremuekin bat etorriko diren hirigintza- eta estetika-kalitateko estandarrak erabiliz antolatu poligonoak (berdegune, zoladura, argiztapena, eta abarren diseinuen irizpideei dagokionez).
- Ahal den neurrian, lagapen-lursailak paisaia-elementu interesgarriak dauden gunetara edo poligonoen perimetroetara eramatea, muga argiak edo izaera duten espazioak sortzeko.
- Kokatzen diren paisaiarekin bat etorriko diren beste integrazio neurri batzuk ezarri: integrazio topografikoa (lurketak, kabaloiak), landare gabeko pantailak, eta abar.
- Industria- edo logistika-garapen handietan, zatikatzea aholkatzen da, eta lursailaren topografiara egokitzea, lurketak minimizatuz.
- Industria-partzelen seinaleetika eta publizitate-kartelak arautu eta harmonizatu, poligono bakoitzean estetika komun bat mantenduz.

c) Landa-gune eta bizitegi sakabanatuen kasuan, aholkatzen da:

- Argiztatze zuzena ordezkatu, fatxadak erreflektore gisa erabiliz, intentsitate baxuz, argi-paldoak eta gaueko zerua ikustea galarazten duen argi-kutsadura ekidinez.
- Euren inguruko eraikinen paisaia-, kultura- eta ingurumen-balioekin integrazioa hobetzen lagunduko duten eraikuntza-elementu eta osagaien ordezkatea eta egokitzea helburu duten laguntzak estimulatu.
- Planeamenduan eraikitze-baldintzak definitu, ikuspuntu bolumetriko, tipologiko eta dentsitatezkoetik landa-gune bakoitzeko ezaugarri morfologikoetan integraturik gera daitezen, eta eraikinen inplantazio moduak arautu, izaera isolatu edo lerrokatura egokitzeko.
- Landa-gune eta bizitegi sakabanatuen elektrizitate-, hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak integratu, euren paisaia-inpaktua ekidinez, eta ahal dela, eraikinetan lurperatu eta integratu.

d) Udal ordenantzetan paisaia-araubide neurriak txertatu, honakoei dagokienez: argi- eta soinu-kutsadura, publizitate-seinaleak eta fatxadetako elementuak, besteak beste, estalpeak, toldoak etab.

e) Hirigintzako proposamenetan Katalogo honetan identifikatutako paisaiaren osagai eta elementu bikainak sartu, Paisaiaren Unitate bakoitzari dagokion fitxa deskribatzailearekin lotutakoak, eta ikuspegi nagusiak izateko aukera eman, gure hirien egitura historikoan osagai eta elementu horiek izan duten eraginaren erreferentzia gal ez dadin.

3.– Donostialdea eremu funtzionaleko paisaiaren balioa hedatu berau zaindu eta hobetzeko bide modura eta garapen ekonomikoaren eragile modura (G.3).

a) Komunikaziorako, balioa emateko eta gizartearen bere paisaiekiko sentsibilizaziorako baliabideak martxan jarri. Honetarako, administraritza desberdinen artean koordinatutako baliabideak aholkatzen dira.

- Ibilbide eta begiratoki paisajistikoen gainean hainbat ibilbide tematiko diseinatu, espazio desberdinak zeharkatuko dituztenak, interpretazio-panelen bidez prozesu nagusiak azalduz, batez ere mendeetako abeltzaintza, nekazaritza eta basogintzazko lanetatik eratorritakoak.
- Donostialdeko E.F.a zeharkatzen duten garraio-azpiegitura handien zortasun-eremuetan seinaleetika horizontala gehitzeko ekinbideak sustatu, haren paisaiaren erreferentziak emango dituztenak, pasabidean diren bidaiariei irispidea erraztuz.

b) Donostialdeko E.F.aren paisaien Komunikazio-plan bat diseinatu eta sustatu, paisaiaren balioen hedapen eta honen zainketa eta hobekuntzarako sentsibilizaziorako ekimenak barne hartuko dituen, hiritarren, eskolen eta enpresaren esparruetan.

- E.F.eko paisaiak txertatu eskola-agendetan. Ikasleen formaziorako paisaiari buruzko ekinbide zehatzak bultzatu. Eskolako XXI agendan proiektuaren jarraipena eskatu.
- Paisaiaren ikasketa eta azterketaren sustaketa egin argazki lehiaketan, elkarteetan, eta abarren bidez.
- Donostialdeko E.F.ean hiritarren parte-hartze mekanismoak bultzatu, paisaiaren hobekuntzarako inplikazioa bilatuz. Paisaia gaietan ekinbide eta politika aktiboen sustapen eta hedapenarekin lotutako web guneak eta sare sozialak modu jarraian irekita mantendu.
- c) Donostialdeko E.F.eko kalitate altuko paisaia produktiboak bertatik eratorritako produktuekin lotu, balioa emate aldera.
- d) Eremu Funtzionaleko paisaien bereizgarri eta irudi izango den beroiei lotutako marka-irudi bat sustatu, tokian tokiko produktuekin lotzeko ere balioa duena. Administrazio eta erakunde desberdinek ematen dituzten paisaia-kalitateko bereizgarriak erantsi irudi hau.
- e) Donostialdeko E.F.aren barneko paisaiei balioa eman, baita azpiegitura berdeari ere. Aktibo azpimarragarria eta biztanleek zein bisitariak EF ezagutzeko eta aisiarako erakarpin-fokua dira.
- f) Bai elkarte eta hiritarrei orokorrean, nola erakunde eta entitate publikoei lotutako lurraldearen zaintzarako mekanismoak sortu.

4.– Hiritarren eskura jarri paisaiarako irispidea eta gozatzeko aukera (G.4).

- a) Ibilgailu motordunentzako bideez eta motorrik gabeko erabilerarako bide kirol-turistikoez (mendiko ibilbide luze, ibilbide labur, eta bazter utzitako bide eta komunikabide-azpiegitura zaharrak) osatutako ibilbide turistikoaren sare bat sustatzea gomendatzen da.
- b) Paisaiarekin begirunez jokatu duten begiratokiak sortu, hedapen paisajistiko zuzena egiteko moduan seinalizatu eta azalduko direnak, ikuspegi zabalenera eremuetan.
- c) Bisitarien etorria antolatuko duten atsedenera txikiak instalatu, paisaiaren hauskortasuna kontuan izanez, balio handieneko parajeak babeste aldera.
- d) Ikuspegi eszeniko onak dituzten gutxi erabilitako bigarren mailako errepideen mapa bat egitea proposatzen da.
- e) Ibilbide paisajistikoaren sarean beste proiektatutako edo proiektatzen ari diren kirol edo aisiarako ibilbideak txertatu. Sare honen barnean bidegorriak bultzatuko dira bereziki, bai hiri mailan nola hiriartekoan. Baita auzoko lurraldeekin konexioak ere, foru-sareari jarraipena emango diotenak Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSen esparruan.
- Trazaketa baldintza ahalik eta erakargarrienak emango zaizkie, paisaiaren interes handieneko espazioekin lotuta ahal den neurrian. Nolanahi ere, paisaiaren balio naturalekiko begirunea bermatuko dute. Indarrean dagoen planeamendu sektorialak finkatutako mugak kontuan izango dira.
- Hala lotutako azpiegituren diseinuen oinarria, nola bidexken bide-zoru, pasabide eta zubi, azpiegitura, mobiliario eta abarrak, paisaiaren integrazioarako irizpideetan oinarrituta egon behar dute.
- Materialen aukeraketa egiteko orduan, kokatzen diren paisaian integra daitezkeenak erabiltzea aholkatzen da.
- Zeharkatuko duten inguruaren ikuspena hobetzea proposatzen da. Horretarako, bide-zati hauei estuki lotutako paisaiaren hobetu daitezkeen puntu edo alderdiak zehaztuko dituzten azterketa espezifikokoak egitea gomendagarria litzateke.

f) Sustapenerako, hedapenerako eta balioa emateko ekintzak lehentasunez beharko dituzten bide eta ibilbideak honako hauek dira:

- Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
- Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea).
- Oianlekuko harrespila. Altzibartik (Oiartzun).
- La Plata Faroa (Pasai San Pedrotik).
- Guadalupeko Amaren gotorlekua (Hondarribia).
- Erregearen Harriko begiratokia (Ulia mendia).
- Adarra mendia. Igoera Besabitik.
- Aldura Mendia. Igoera Listorretatik (Errenteria).
- Ametzagaña landa-parkea: zeharkatzen duten bidexkak.
- Plaiaundi: bidexka zirkularra.
- PR-Gi 1005 Errenteria-San Marko.
- Igoera Beloagako Gaztelura.
- Arditurriko bide berdea.
- Bidasoako bide berdea.
- Plazaolako bide berdea (Leitzaran, Gr-121)
- GR-121 (Gipuzkoari bira).
- Beste Ibilbide Luzeak (GR): GR-10, GR-34, GR 11, GR 121 E21, GR T2.
- Plazaola trenbidearen bide berdea. Bereziki proposatzen da bere ibilbidea Donostiaraino luzatzea (trenaren jatorrizko helmuga), honela berriz ere Nafarroatik itsasorainoko irtenbidea emango litzaiokeelarik, trenbide zaharrear zehar.

g) Donejakue Bidetik hautematen diren lekuneen paisaia-integraziorako izaera bereziko azterketa bat egitea proposatzen da. Paisaia arreta bereziz behatuko duten ikusleen erakarpenerako elementua izateaz gain, euren konnotazio historiko, erlijioso, eta abarrekoa medio, paisaia ukiezin esaten zaion horren balioen sortzaile garrantzitsua da.

h) Urtegi eta ibai-bideen erabilpen turistiko-aisialdiko-hezkuntzako-mugikortasunezkoa, agintari eskudunek ezarritako mugak kontuan hartuta.

- Ibaien eta Añarbeko urtegiaren zenbait zati euren aisialdiko erabilerarako egokitzea gomendatzen da, inguruarekin errespetuz eta modu jasangarrian. Urtegian nabigatzea eta aisialdiko erabilpen intentsiboak debekatuta daudela aintzat hartu behar da. Honetarako eta egon daitezkeen beste muga batzuegatik, batez ere mantentze-lanekin lotuta, eremu funtzionaleko udalerrien eta ibai-arroako erakundearen (URA Agentzia eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa) arteko planeamendua egin behar da, aisiarako espazio egokienak kokatu ahal izateko ingurumeneko inpakturik izan gabe.
- Arrantzan egiteko postuetara irispideak hobetu, eta, interesatuak dauden elkarte eta udalerriekin batera, espezie autoktonoei, arrantza-tipologiei, eta abarrei buruzko formaziorako eta hedapenerako jardunaldiak bultzatu.
- Baliabide hauen garapen turistiko-aisiarakoa erabilpen ez oldarkorrez eta uren, jabari publiko hidraulikoaren, arrantzaren, eta abarren gainean indarrean dauden legeen babesean egin behar da.

5.– Paisaia baliabidearen gaineko zeharkako kontrolak eta azterketa areagotu (G.5).

a) Administrazioen arteko, udalerriak batez ere, elkarlana sustatu, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia ere inplikatu, Katalogoaren PKHak lortzeko eta paisaiaren ekintza-planak martxan jarri ahal izateko, alderdi komunak gehituko dituzten ordenantzak eta arautegia koordinatzeaz gainera.

b) Ereku Funtzionalean mekanismoak bultzatzea aholkatzen da, paisaiaren kudeaketan adituak diren teknikariei hainbat langintzetan laguntzeko ahalmena emanez, hala nola:

- Sektore ekonomiko desberdinetako enpresari, udal, teknikari, tokiko garapen-agente, naturagune babestuetako teknikari, eta abarri aholkularitza.
- Aldizkako kontrolak lurraldean gerta daitezkeen balizko aldaketak aurreikusi, detektatu eta aztertzeko asmoz: balioen aldaketak suposatzen duten ikus-inpaktu negatibodun elementuen detekzioa, hauskortasun edo zaurgarritasunaren aldaketak, eta abar.
- Paisaiaren babeserako hartutako neurrien eraginkortasunaren gaineko kontrolak, bai dokumentu honetan izendatutakoak, bai beste lurralde-dokumentuetan azaldutakoak ere.
- Donostialdeko E.F.eko paisaien zaintza eta balioa emateko azterlan eta proiektuak egitea.
 - Formaziorako jarduerak diseinatu eta ezartzea.
 - Ingurumen- eta paisaia-praktika egokien eskuliburuak idaztea.
 - Interpretaziorako ekipamenduaren diseinua.
 - Udalerrietan garatzen den Tokiko Agenda 21aren idazketa eta kudeaketan laguntza eta aholkularitza.
 - Sare sozialetan Donostialdeko E.F.eko paisaien marka digitalaren irudia indartzen lagundu.

6. artikulua.– Hiri kokalekuei dagozkien zehaztapenak (U).

1.– Paisaia-balio handiko hiriguneak mantentzea. (U.C.1).

a) Gune eta hiri-profil ikusgarrien eta ezaguterrezenaren gainean eragin, KIO (Kultura Intereseko Ondasun) gisa katalogatua egon ala ez.

b) Eraikitako ondarearen berreskuratzea bultzatu, lurzoruaren okupazio berriak gauzatu aurretik, hiritar ingurunearen paisaia-itxura hobetzeko asmoz.

c) Kasko historikoen itxura estetikoari dagokion hirigintza-arautegiaren betetzea sustatu eta kontrolatu.

d) Babeserako proposatutako eremuetan, dagoeneko ez daukaten udalerrien aldetik, kokatu behar duten espazioarekin bat datozen bolumetria, kolore eta bukaerei dagokienez eraikingintza-tipologiak zehatzak ezarri, aurretik existitzen duen hiri-paisaiarekin integrazio harmonikoa eskainiko duen egitura morfologiko baten barnean.

e) Dagoeneko ez dauzkaten kasko historikoetan, arau erregularizatzaile eta integratzaileak onartu birgaitze-lanei dagokienez (fatxada, morfologia, materiala eta koloreak), lurzoru motak, hiri-altzariak, informazio-kartelak, publizitate-seinalizazioa, eta abar. Arau hauek existitzen direnean, bete daitezten kontrolatu.

f) Paisaia-balio handiko hiri kokalekuak eta, beraz, zehaztapen hauek aplikagarriak zaizkienak honako hauek dira:

Belmonteko Erdi Aroko hiribildua Usurbilen.CO.1

Erdi Aroko hiribildua Hernanin. CO.3

Pasai Donibane. AC.3

Donostiako Antigua eta itsasertzeko fatxada. BU.1

Pasai Donibane. BU.3

Pasai San Pedro. BU.3

Errenteriako Erdi Aroko hiribildua. BU.3

Erdi Aroko hiribildua Hondarribian. BU.4

Marina Auzoa (Hondarribia). BU.4

2.– Landa-guneak mantentzea (U.C.2).

- a) Ahal den neurrian, landa-paisaiarekin lotutako esparruetan, ekipamendu, ostatu turistiko edo bestelako azpiegituren instalakuntzarako irizpide gisa, esistitzen diren eraikinak berrerabili edo birgaitu. Era honetara, egitura berrien eraikuntza minimizatuko da.
- b) Landa-eraikin tradizionalen berroneratze eta balioan jartzea sustatu.
- c) Landa-asentu eta auzoen kolmatazioa bultzatu, interstizioak betez, eta ahal denean, gaur egungo mugetatik harago lurzoru urbanizagarri berririk sailkatu gabe. Eraikuntza berrien kasuan, baserrien eraikingintza-tipologia mantentzea aholkatzen da, diseinu edo eredu zehatzen finkatzearen bidez (udal planeamenduei txertatuta eta hauengatik zehaztuak).
- d) Mantendu beharrekoak diren hiri kokalekuak eta zehaztaperen hauek aplikagarriak zaizkienak honako hauek dira:

Aginaga. RM.2 ORIAKO ITSASADARRA
Ergoien. P.2 OIARTZUNGO HARANA
Karrika. P.2 OIARTZUNGO HARANA
Gurutze. ES.4 URKABE - SAN MARTZIALGO MENDIAK ETA HARANAK
Ereñotzu. M.4 URUMEA MENDIA
Urdaiaga. M.6 ANDATZA MENDIA

3.– Hiri kokalekuetan dagoen landare-paisaia mantentzea (U.C.3).

- a) Derrigorrean laga beharreko lurzoruei paisaia-balio handiko landare-formazioak gehitzea gomendatzen da, LPPak «Hiri Multzoak eta Hiri Inguruko Landa» gisa mugatutako eremuetan daudenak, hau da, kontuan hartzea, zati batean edo osorik, espazio horien paisaia- eta ingurumen-balioa handitzen laguntzen duten elementuak edo multzoak, espezie autoktonoen zuhaitzi garatuak kasu.
- b) Paisaiari ekarpen esanguratsua egiten dioten partzelen jabeekin «lurralde-kontratuak» ezarri gune hauetan. Kontratuetan lursail pribatuen maneia eta aprobetxamendua aztertuko da, paisaia mantendu eta hobetzeko helburuarekin.
- c) Paisaiaren ikuspuntutik praktika egokiak sustatu, jabeen artean eta formazio-saioetan hedatuko litzatekeen gomendioen eskuliburu baten bidez.

4.– Ikus-kalitate txikiko etxetarako kokalekuak hobetzea (U.M.1).

- a) Hiri-kaskoetako ibai- eta itsas-aurreen birgaitze eta balioa emateko lanak sustatu: fatxaden tratamenduak, elementu disonante eta heterogeneoen berregituraketa (itxiturak, toldoak, estalpeak, eta abar)
- b) Hiri-birgaitze eta berroneratzean gehien narriatutako hiri-ehundurari balioa ematera zuzendutako integrazio eta ikuspen-hobekuntzarako irizpideak erabili.
- c) Aparkaleku-eremuak ikuspen aldetik hobetu, hiri-espazioan integratuz.
- d) Kalitateko paisaiak sortuko dituzten espazio publiko berriak sortu, bazter utzitako edo bizitegi-eremuetatik kanpo kokatu beharko liratekeen jarduerak dituzten eremuei, eta abarri irabaziz.
- e) Kiebran dauden enpresen inguruaren narriadura arriskuak ekiditeko neurriak ezarri.
- f) Hiri-zuhaitzia hobetu eta zabaltu, inguruarekin bat datozen espezieak aukeratuz.
- g) Hiri-altzariak eta seinalizazioaren aukeraketan paisaiaren integrazio eta kalitate estetikorako irizpidea onetsi. Kokatuta dauden hiri-paisaiaren kalitatea modu nabarmenean murrizten duten elementuak ordezkatzeko gomendioa egiten da.

h) Bisualki hobetu beharrekoak diren ikus-balio txikiko guneak, eta zehaztapen hauek aplikagarriak zaizkienak honako hauek dira:

KORRIDOREAK

CO.1 ORIA BEHEKO KORRIDOREA

Lasarte-Oria: Cocheras, Ensanche, Goikale, Iñigo De Loiola, Loidi-Barren, Okendo, Sasoeta, Urdaneta, Villas, Zumaburu.

CO.2 ANDOAIN - URNIETA KORRIDOREA

Andoain: Etxebarrieta, Izturitzaga, Karrika, Txitibar, Zumea

CO.3 URUMEA BEHEKO KORRIDOREA

Hernani: Etxeberri, Florida.

CO.4 OARSOALDEKO KORRIDOREA

Errenteria: Beraun, Galtzaraborda, Vaguada Pontika

Lezo: Camping La Rosaleda Lezo

CO.5 IRUNGO KORRIDOREA ETA HIRIGUNEA

Irun: Arbesko Errota, Azken Portu, Buenabista, Etxeberrizar, Gasparrenea, Txurnierreka. Arranputzu

ITSASBAZTERREKO LERROKADURAK

AC.4 JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (BARNEKALDEA)

Pasaia: Pescaderia

ITSASERTZEKO BADIAK ETA HIRIGUNEA

BU.2 DONOSTIAKO INGURABIDE PERIFERIKOA

Donostia: Altza Gaina, Auditx-Akular, Bidebieta-Artazkone, Bidebieta-La Paz, Gomistegi, La Herrera, Larratxo, San Luis.

BU.3 PASAIAKO BADIA

Donostia: Gomistegi

Errenteria: Agustinas, Alaberga, Basonaga-Sorgintxulo, Beraun, Capuchinos, Galtzaraborda, Gaztaño, Iztietia, Vaguada Pontika, Pasaia: Araneder, Azkuene, Pablo Enea, Pescaderia, Salinas

5.– Hiri inguruko espazioen itxura hobetzea (U.M.2).

a) Hiri-mugak eta paisaia-baloreak dituzten eremuak lehenesten dituen eta euren arteko iragazkortasun eta trantsizioa bermatuko duen nahitaez laga beharreko lurzoruen antolaketa ezartzen saiatu.

b) Hiri inguruko espazioetan dauden eremu narriatuak paisaia aldetik integratu, hainbat mekanismo bultzatuz, hala nola administrazioaren diruilaguntzak emateko lerroetan paisaiaren hobekuntza txertatzea.

c) Kalitateko paisaiak sortuko dituzten espazio publiko berriak sortu, bazter utzitako edo hiri inguruetatik kanpo kokatu beharko liratekeen jarduerak dituzten eremuei (erauzte-eremuak) irabaziz.

d) Ez baleude, baratze prekario eta haiei atxikitutako eraikinak (txabolak eta lanabes-etxolak) birgaitzerako mekanismoak ezarri planeamenduaren barnean.

e) Landa-paisaiarekin lotutako esparruetan ekipamendua instalatzeko irizpide gisa dagoeneko badauden eraikuntzak berrerabili edo birgaitu.

f) Bisualki hobetu beharreko hiri inguruko espazioak, eta lehentasunez zehaztapen hauek aplikagarriak zaizkienak honako PUetakoak dira:

– AC.2 MENDIZORROTZ - BORDATXO MENDIAK

– PR.1 ORIA ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEA

– PR.2 OIARTZUN ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEA

– ES.1 BURUNTZA - SANTA BARBARAKO MENDIAK

– ES.2 GOIBURUKO MUINOA

- ES.3 SANTIAGOMENDI - SAN MARKOKO MENDIAK
- ES.4 URKABE - SAN MARTZIALGO MENDIAK ETA HARANAK
- CO.2 ANDOAIN - URNIETA KORRIDOREA

6.- Hiriguneetarako sarbideen itxura hobetzea (U.M.3).

- a) Ahal den neurrian, guneen sarbideak parke, plaza, oinezko eta bizikletazko ibilbide eta bestelako espazio publikoen sarearekin lotu, hiri-paisaiaren beharrezkoa den jarraikortasun espazial eta sozialari begira.
- b) Dauden elementu naturalei balioa eman: ur-ibilguak, topografia, zuhaitziak, eta sarbideak bereiziko dituzten elementu arkitektonikoak, hala nola, zubiak, gurutzeak, baselizak, etxe nobleak, aduanak, kamineroen etxeak, guarda-etxeak, eta abar.
- c) Bide-ardatzetan zehar zuhaitz-lerrokadurak birlandatzen saiatu, izaera eta nortasuna txertatze aldera, tamaina, aurkezpen eta espezie aldetik estandarrak erabiliz.
- d) Guneen sarbide eta hiri inguruko eremuetako ibilgailu-bideen inguruko publizitate-errotulu handien eta seinalizazioaren diseinua, finkatzea edota deuseztaketa arautuko duten udal-ordenantzen idazketa bultzatu.
- e) Landa-girorako trantsizio eremuetan: bionda metalikoak ordezkatu, eta seinalizazioa. Argiztapen ez-zuzena eta trantsiziozko graduala erabili hirigune eta landagunearen tartean.
- f) Bisualki hobetu beharreko guneeetarako sarrerak eta zehaztapen hauek lehentasunez aplikagarriak zaizkienak honako hauek dira:
 - Sarrera Lasarte-Oriara Atsobakarretik CO.1
 - Sarrera Donostiara Añorgatik.CO.1 eta PR.1
 - Sarrera Andoainera Bazkardotik.CO.2 ets ES.1
 - A8tik irteera Oiartzun eta Errenteriarantz. CO.4 eta BU.3
 - Sarrera Irunera Hendaiatik. CO.5 eta RM.1
 - Sarrera Pasai San Pedrorra Trintxerpetik BU.3

7.- Hutsik dagoen lurzoru urbanizatua hobetzea (U.M.4).

- a) Lorazaintzarako edo baratze sozialetarako behin-behineko lagapenen bidez erabili gabeko partzelen ikuspegi-hobekuntza sustatu, aurretik lurzoru hauen erabilerarako baldintza izango diren baldintzatzaile estetikoak eta erabilgai izango diren materialenak ezarriz.
- b) Abereentzako landak mantentzea sustatu.
- c) Ordenantzetan eremu hauetako mantentze estetikoa txertatu, iragarki komertzialen tamaina mugatuz edota oso eremu ikusgarrietan espazio irekiak edo landa-hesiak lehenetsiz.
- d) Bisualki hobetu beharreko eraiki gabeko hiri-eremuak, eta zehaztapen hauek lehentasunez aplikagarriak zaizkienak, honako hauek dira:
 - Agerre Azpi (Usurbil). CO.1
 - Pagola. (Donostia).BU.2
 - Illarra. (Donostia).BU.2
 - Atotxa Erreka. (Donostia). PR.1
 - Zabaleta Berri. (Donostia). PR.1

8.- Industria poligonoen itxura hobetzea (U.M.5).

- a) Industria-ehunduren hirigintza eraberritzeko politika integral bat zirriboratu, euren bizitza-zikloa handitzera zuzendua, eta eraberritzearen zerbitzu ekosistemikoak erabatekotasunez integratuz.
- b) Industria-ehunduren eraberrikuntzarako politikak sustatu, bizitegi-eremuen pareko hirigintza-kalitateko eta estetikazko estandarrak ezarriz:

- Fatxada, estalpe, bolumetria eta berdeguneen diseinuen bukaerei dagokienez kalitateko irizpide estetikoak ezarri.
- Lagapen-eremuetan berdeguneak sortu, gehien ikusten diren inguru perimetraletan bereziki.
- kokatzen diren paisaiekin bat datozen beste integrazio-neurri batzuk finkatu: integrazio topografikoa (lurketak, kabailoiak), landare gabeko pantailak, eta abar.
- Poligonoen kaleetan zuhaitz lerrokaduren landaketak egin.
- c) Hutsik dauden industria-partzelen seinaleketak eta publizitate-kartelak arautu eta harmonizatu, poligono bakoitzean estetika komun bat mantenduz.
- d) Barnean dituzten elementu naturalei balioa eman (ibai-ibilguak).
- e) Bisualki hobetu beharreko industria espazioak, eta zehaztaperen hauek aplikagarriak zaizkienak, ikuspen handiko industria poligonoak dira:

KORRIDOREAK

- CO.1 ORIA BEHEKO KORRIDOREA

Donostia: Belartza (I), Rekalde (II).
 Lasarte-Oria: Rekalde, Michelin 1, Michelin 2.
 Usturbi: Asteasuain, Asteasuain-2, Elor Azpi, Zapategi

- CO.2 ANDOAIN - URNIETA KORRIDOREA

Andoain: Inquitex, Sorabilla, Azelain, Ubillots, Bordaberri, Ikutza, Ama Kandida, Martin Ugalde, Ziako, Krupp, Krafft, Larramendi.
 Urnieta: Erratzu, Ergoien.

- CO.3 URUMEA BEHEKO KORRIDOREA

Astigarraga: Bidebitarte, Mundarro, Txalaka-Ergobia, Txalaka-Oialume, Gurutzeta, Zubigain, Ubarburu.
 Donostia: Torrua Zahar.
 Hernani Florida-Industrialdea, Akerregi, Ibaiondo, Landare-Zubiondo, Martindegi, Zikuñaga Eziago, Epela, Ibarluze-Lizarraga, Lastola.

- CO.4 OARSOALDEKO KORRIDOREA

Errenteria: Aranguren, Masti-Loidi.
 Lezo: Iturrin, Salva, Guiasa.
 Oiartzun Lanbarren, Lintzirin, Errota Legorzarra, Lintziringaina, Makarrastegi, Arkotz, Ugaldetxo, UGA-6. Industrialdea, Talaia, Aranguren.

- CO.5 IRUNGO KORRIDOREA ETA HIRIGUNEA

Irun: Arretxe-Ugalde, Belaskoenea-Arretxe, Antiguu Banco Gipuzkoano, Bidaurre-Ureder, CAF, Laskuain, Letxunborro, Oianzabaleta, Soraxarta-Decoexsa-Mugica, Ugalde-Ventas, Ventas.
 Hondarribia: Zaldunborda I, Eskapatxulo.

ITSASBAZTERREKO LERROKADURAK

- AC.2 MENDIZORROTZ - BORDATXO MENDIAK

Donostia: IB.13 Igara

ITSASERTZEKO BADIAK ETA HIRIGUNEA

- BU.2 DONOSTIAKO INGURABIDE PERIFERIKOA

Donostia: Larratxo, Igara, El Infierno

- BU.3 PASAIAKO BADIA

Donostia: Jolastokieta
 Errenteria: Papelera, Puerto
 Lezo: Antiguu Polígono 7, Algeposa 2, Puerto
 Pasaia: Puerto

- BU.4 TXINGUDIKO BADIA
Hondarribia: Txiplao
ITSASBAZTER-AURREKO MUINODUN ERLIEBEAK
- PR.1 ORIA ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEAK
Donostia: Belartza (I.
Hernani: Galarreta.
- PR.2 OIARTZUN ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEAK
Astigarraga: Ubarburu, Putzueta.
MENDI-OINEKO HEGALAK ETA HARANAK
- P.1 JAIZKIBELGO MENDI-OINA
Lezo: Algeposa 2, Papresa, Sagasti, Ipintza.
Oiartzun: Lintziringaina.
- P.2 OIARTZUNGO HARANA
Oiartzun: Altzibar, Ergoien, Zerradi.
BIGARREN MAILAKO ELEBAZIOAK
- ES.2 GOIBURUKO MUINOAK
Hernani: Epela.
Urnieta: Erratzu.

7. artikulua.– Garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturei dagozkien zehaztapenak.

1.– Garraio azpiegiturak hobetzea (elementuak eta ikuspegiak) (I.M.1).

- a) Donostialdeko E.F.ean aurkitzen diren azpiegituren paisaia-integraziorako Plan bat garatu, eduki hauekin:
 - AP-8 autopista GI-20arekin maila desberdinetan lotzen den lekuan (Errenteria eta Oiartzuneranzko irteera barne hartuta) integraziorako plan berezi bat lantzea proposatzen da, irizpide estetikoak eta ingurumen-jasangarritasunezkoak kontuan izango dituenak. Horretarako azpiegitura honen ikuspen-inpaktuak aztertu beharko dira, ikus-arroekin batera, korapiloaren hobetze estetikorako neurriak proposatze aldera.
 - Garraiorako azpiegitura handietan paisaia- eta ekologia-loturak lortzeko tunel faltsuak sortzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa: zehazki proposatzen da, Lanbarren eta Araso (Lezo-Irun korridorea) arteko esparruan AP-8an, honen bide paraleloa den N-I Gaintzurizketa parean bezala. Era honetara, Jaizkibel-AIAKO HARRIA korridore ekologikoaren berreskuraketa bideratzen da.
 - Teknika bigunen bidez (bioingeniaritza, landaketak eta ereinketak) bide-ezponden eraberritze paisajistikoa.
 - Bideetan zuhaitzak sartu, indarrean dagoen legediari jarraituz, landare-pantailen funtzioa bete dezaten, narriatzaile diren elementuak estaliz (bazter utzitako eraikuntzak, hondakin eta ondarrak pilaketak).
 - Errepidetatik ikusgai diren ikuspen-inpaktuak murrizteko panelak jartzea, inguruaren ikuspen-kalitatea hobetuko dutenak. Donostialdeko E.F.eko paisaien hedapenerako panelak jartzea proposatzen da, indarrean dagoen legediari jarraituz.
 - Errepideen inguruan publizitate-errotuluen erabilera, diseinuari eta akaberei buruzko gomendioak sustatzea, dauden inguruari egokitu daitezkeen.
 - Zerbitzu-guneen ikuspegi-hobekuntza.

b) Paisaia aldetik integratu beharrekoak diren garraiorako azpiegitura handiak eta zehaztaperen hauek lehentasunez aplikagarriak izango dituztenak «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa I» eta «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa II»n kokatu dira eta, trenbide eta errepide nagusiez gain, honako hauek dira:

- Lasarte Oriako bidegunea, AP-8aren lotura AP-15arekin, Urbil merkatalgunera sarbideak eta industria poligonoak.CO.1
- Erreneriako bidegunea, AP-8aren lotura GI-20arekin, eta irteera Erreneria eta Oiartzunerantz.CO.4
- AP-8a Gaintxurizketa parean. CO.4 eta CO.5

2.– Gordailuak eta energia-garraioen eta telekomunikazioen azpiegiturak paisaian integratzea (I.M.2).

a) Donostialdeko E.F.ean linea elektriko edo telekomunikazioko azpiegiturak paisaian integratzeko Plana garatu, honako eduki hauekin:

- Linea elektriko edo telekomunikazioko lurperatzearen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa, natura-balio bereziko espazio babestu eta paisaia bikainei lotutako PIBEei nabarmen eragiten dieten zatietan.
- Ereku funtzionaleko azpiestazio elektriko, antena, kontrolerako eraikin eta gordailuen tratamendu estetikorako neurriak, atzeko ikuspegi-hondoetan, eta inguruko paisaian ahal den neurrian integratuz.
- Bazter utzitako edo erabiltzen ez diren azpiegitura elektrikoak kentzea.

b) Paisaia aldetik integratu beharrekoak diren gordailuak eta energia-garraioen eta telekomunikazioen azpiegitura handiak, eta zehaztaperen hauek lehentasunez aplikagarriak izango dituztenak «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa II»n kokatu dira eta honako PU hauetan kokatzen dira:

- ST Lasarte CO.1
- ST Usurbil.CO.1
- ST Inquitex (Andoain). CO.2
- ST Zikuñaga (Hernani) CO.3
- ST Martutene (Donostia) CO.3
- ST Irun. CO.5
- ST Lezo. CO.5
- ST Errondo (Donostia). BU.2
- ST Papresa (Erreneria). BU.3
- ST Cementos Rezola (Añorga), (Donostia).
- ST Oiartzun P.1.
- ST Hernani.ES.2
- ST Arkale (Oiartzun). ES.4

3.– Bigarren mailako errepideen ikuspegia hobetzea (I.M.3).

a) Mantentzeko proposatu diren paisaia-balio altuko paisaiaren unitateak zeharkatzen dituzten errepideen itxura eta integrazioa hobetu.

b) Garraio-azpiegituren multzorako aurreikusi diren neurriez gain, bereziki gomendatzen da:

- Bai bionda metalikoak nola seinaletika, kokatuta dauden inguruarekin bateragarriagoak diren elementuekin ordezkatu.
- Bideen bi aldeetan zuhaitzen landaketak egin, indarrean dagoen legediari jarraituz, landare-pantailen funtzioa bete dezaten, narriatzaile diren elementuak estaliz (bazter utzitako eraikuntzak, hondakin eta ondarren pilaketak, eta abar).
- Harlangaitzezko eta gabioiezko elementuak berroneratu eta balioan jarri.
- Gurdi-bideetan errodatze-zoruaren kromatismoak zeharkatzen duen inguruarekin inpaktu negatiboa sortzen badu, hura ordezkatu.

c) Bisualki hobetu beharrekoak diren bigarren mailako errepideak eta zehaztapan hauek lehentasunez aplikagarriak izango dituztenak honako PU hauetan kokatzen dira: «Itsasbazterreko Lerroak», «Itsasadarrak eta Padurak», «Barnealdeko Mendiak».

8. artikulua.– Erauzketa-lanei, zabortegiei eta hondakinen tratamendu-plantei dagozkien zehaztapanak.

1.– Harrobi eta zabortegien ikuspegia hobetzea (E.M.1).

a) Indarrean dauden harrobien Berreskuratze-planek ezarritako paisaia-integrazio egokiaren kontrol handiago baterako neurriak ezarri. Besteak beste, honako hauek betearazteko neurriak ezartzea gomendatzen da:

- Ikuspegiak ezkutatzeko ekintzak (langa berdeak, eta abar) harrobien ustiapen-fasearen bitartean.
- Ebakitako frenteen inpaktua gutxitzeko neurriak. Ikuspen aldetik agerikoenak diren eremuetan arkaitzei zahar-itxura emateko tratamenduen erabilera derrigorrezko neurri gisa proposatzea gomendatzen da.
- Sarbideen paisaia-integrazioa. Sarreretan landaketen erabilera sustatu eta hedatzea gomendatzen da, ezponden egonkortasunerako bioingeniaritza-neurriekin batera.

b) Paisaia aldetik egokitu eta integratu beharrekoak diren eremuak, eta zehaztapan hauek lehentasunez aplikagarriak izango dituztenak honako hauek dira:

- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa. CO.1
- Buruntza II harrobia (Andoain). CO.2
- Basozabal harrobia (Donostia). PR.1
- Lau Haizeta harrobia (Donostia). PR.2
- Lau Haizeta Zabortegia (Donostia). PR.2
- Buruntza I harrobia (Andoain). ES.1
- Buruntza II harrobia (Andoain). ES.1
- Santa Barbara harrobia. (Hernani). ES.1
- Hernaniko Zabortegia. ES.1
- Urkiondo harrobia. ES.2
- Urnietako Zabortegia. ES.2

2.– Bazter utzitako harrobien ikuspegia hobetzea (E.M.2.).

a) Euren antolaketa eta birgaitzeko plan berezien idazketa bultzatu.

b) Ahal den guztietan proiektuen barnean geomorfologiaren berrosaketa kontuan izatea gomendatzen da.

c) Morfologiaren berrosaketa ekonomikoki edo teknikoki bideragarria ez den kasuetan, kokatuta dauden inguruarekin bat egingo duen paisaia berriak sortzea proposatzen da.

d) Bisualki hobetu beharrekoak diren erabilpenik gabeko erauzketa-eremuak, non zehaztapan hauek aplikagarriak diren, dagokien «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa II»n mapan kartografiatuak daude, eta M.2 «Aiako Harriaren Iparraldeko Mendiak» izeneko PUan.

9. artikulua.– Abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerei dagozkien zehaztapanak.

1.– Paisaian garrantzizkoa den nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia zaintzea (A.C.1).

a) Paisaia-balio handiko nekazaritza-guneak babestea eta kontserbatzea. Komeni da kontuan hartzea espazio horien paisaia- eta ingurumen-balioa handitzen laguntzen duten elementuak edo multzoak, nekazaritza-gune gisa, egitura tradizionalak baitituzte, lurzatien antolamenduari, itxiturei edo laborantza-moduei dagokienez.

- b) Kalitatezko laborantzak babesteko neurriak diseinatu; adibidez, sagardotarako sagastienak, Astigarraga, Errenteria eta Hernanikoak, batez ere. Besteak beste paisaiaren kalitate altua duten sistema tradizioaletatik eratorritako sagardoen jatorri-izendapena garatzea proposatzen da.
- c) Lurzoru ez urbanizagarrian kokatzen diren ikus-inpaktu handiko gaur egungo ala etorkizuneko eraikuntza isolatuen «Paisaia-integratuzko Azterlanak sustatu. Eraikuntza berrien kokapena paisaia-irizpideekin eta lurralde-eskalan aztertu: garapen berriak, laboreak, baserri eta instalazioak gaur egun dagoeneko badauden Paisaia Unitateetan kontzentratzea gomendatzen da. Ahal den neurrian, Katalogoan deskribatzen diren osagai eta elementu bikainen ikuspegiekin interferitu ez dezan zaindu, PUen karakterizazioko fitxetako bakoitzean.
- d) Nekazaritza eta Abeltzaintza jardueren garapenarekin lotutako eraikin berrien diseinua arautuko duten eraikuntza-baldintzatzaileak txertatu hirigintza-arautegian, batez ere ikusmen-esposizio handiko egoeretan. Baldintzatzaile hauek kontuan izan beharko dute, haien egikaritzea kokatzen diren giroari egokitzen zaiola, eta ez dutela ikus-inpaktu negatiborik sortzen, ez kokapenagatik, bolumenagatik, tipologiagatik, materialengatik ezta kolorengatik ere.
- e) Inguruko tipologia-konstante eta materialekin koherenteak eta harmoniatsuak izango diren konposizio- eta eraikuntza-irizpideak finkatu.
- f) Paisaiari ekarpen esanguratsua egiten dioten nekazal ustiapen jakin batzuei «lurralde-kontratuak» ezarri, sagardotarako sagastiei bereziki. Kontratuetan lursail pribatuen maneia eta aprobetxamendua aztertuko dira, paisaia mantendu eta hobetzeko asmoz.
- g) Paisaiaren ikuspuntutik nekazaritza eta abeltzaintzarako praktika egokiak sustatu, jabeen artean eta formazio-ekintzetan hedatzeko gomendioen gidaliburu baten lanketaren bidez. Haien artean, azpimarra daitezke partzelen arteko mugak bereizteko hesi eta zuhaitz-itxiturak sortzeko ekintzak, paisaiaren aniztasuna bultzatu eta laguntzeko balio dutenak.
- h) Kalitateko paisaiak sortzen dituzten abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerak lehentasun gisa mantendu behar diren esparruak, eta zehaztapen hauek aplikagarriak direnak «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa I»ean aurki ditzakegu.

2.– Nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia hobetzea (nekazaritza-industria) (A.M.1).

- a) Paisaian integratuko diren eta jabeen eskura egongo den eraikuntza-alternatiben eskuliburu oinarritzako bat gehitu hirigintza-arautegiari, eranskin gisa. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren garapenari lotutako eraikin berrien eraikuntza, aurretik jarritako baldintza batzuen pean egin behar da, haien egikaritzea kokatzen diren inguruari egokitu dadin, eta ikus-inpaktu negatiborik sortu ez dezan, ez kokapenagatik, ez tipologiagatik.
- b) Inguruko tipologia-konstante eta materialekin koherenteak eta harmoniatsuak izango diren konposizio- eta eraikuntza-irizpideak finkatu. Azken honi dagozkien ordenantzak betetzen diren kontrolatuko da. Zehazki, nekazal-ustiaketan estalpe eta fatxaden egitura, material eta koloreen diseinua arautuko da, ikuspen-esposizio handiko kasuetan bereziki.
- c) Negutegi handien edo nekazaritzarako azpiegituren paisaia-integratuzko azterlanak sustatu, batez ere ikus-irispene altuko eremuetan. Integratio estrategiarik egokiena finkatu, mimetizazioa, ezkutaketa edo naturalizazioa, dagoen paisaiaren osagai garrantzitsuak eta izan ditzakeen inpaktuak aztertuta, kokalekuaren eta proposamenaren bolumetriaren arabera.
- d) Pilaketak (uzta, hondakinak ...) antolatzekeko ordenari buruzko irizpide estetikoak eta paisaia-irizpideak sustatzea.
- e) Irizpide hauek lehentasun gisa aplikatuko diren elementuak Donostialdeko E.F.ean aukeratutako ikus-inpaktu handiena duten negutegi eta abeltzaintza eta nekazaritzako eraikuntzak izango dira, «Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa II»n kartografiatuak daudenak.

10. artikulua.– Basogintza erabilerei dagozkien zehaztapenak.

1.– Ikusgarritasun handiko baso-landaketak hobetzea (F.M.1).

- a) Ikus-irisgarritasun handiko eremuetan dauden titulartasun publikoko mendietan paisaia-balioak eta ikusizko alderdiak sartzeari gomendatzen da kudeaketa planifikatzeko orduan.
- b) Monolaborantzaren aurrean baso-birpopulaketetarako espezieak aniztu.
- c) Baso-sail irregularrak lortzera bideratutako neurriak ezarri, gutxienez itxurari dagokionez (kaleen banaketa, mozketa-zatien forma, eta abar), unada mistoen tartekatzeekin eta aniztasuna handitzeko ekotonoen garapenarekin.
- d) Zuhazti helduentzako erreserba-eremuak mugatu honako helburu hauekin: korridore ekologikoen sarea hobetzeko; balio ekonomiko eta ingurumenezko handiagoa duten espezien erabilera handitzeko; zuraren landaketa eta aprobetxamendu praktikan zehaztasun-neurriak muturrera eramateko, lurzorua eta hidrologia-erregimena arriskuan jarri ez daitezen.
- e) Ikus-irispide handiko suaren aurkako kaleen mugak birdefinitu. Suaren aurkako kaleen mugen zati batzuk zabalduz ertz irregularrak sortzea eta erabilera mistoak ahalbidetzea, hala nola larresuebakiak, proposatzen da.
- f) «Paisaiaren Kalitate Helburuen Mapa II» delakoan kartografiatzen ziren ikuspen handiko baso-landaketak lehentasunez bisualki hobetzea gomendatzen da.

2.– Formazio autoktonoak berreskuratzea (F.R.1).

- a) Gaur egun ekoizpen-landaketak dauzkaten eta euren ikuspen-hauskortasunagatik identifikatuak dauden unadetan, pagadi edo hariztiak leheneratzeko proiektuak sustatu.
- b) Botatze selektibo eta espezie autoktonoen landaketa bidez, gomendatutako landaketen berezko basoetarako trantsizioa bultzatu.
- c) Unada hauetan bestelako presioa mugatu, formazio hauen berezko bilakaera eten ez dezan.
- d) «Paisaiaren Kalitate Helburuen Mapa II» delakoan kartografiatzen ziren ikuspen handiko baso-landaketak lehentasunez bisualki hobetzea gomendatzen da.

11. artikulua.– Kultura-ondareari dagozkion zehaztapenak.

1.– Ondarea zaindu eta mantentzea: Militarra, erlijiosoa, industrial, zibila, etnografikoa eta bide historikoak, paisaia egituratzen duten ardatz diren aldetik (P.C.1).

- a) Arautegi desberdinetan elementuek daukaten babesean, hauen ikuspen-arroa eta Paisaia Unitateak kontuan izango dituzten neurriak txertatu.
- b) Katalogoan izendatutako elementu historiko, sinboliko eta nortasunezkoen eta haiek paisaia-ibilbide eta -begiratoki sarearekin duten loturen identifikazio eta seinalizazioa sustatu.
- c) Bide historiko eta ibilbide nagusiak mantendu eta balioa eman, Donejakue bidea bereziki.
- d) Ondare-katalogoen berrikuspenean, mantenu eta kudeaketarako markatzen diren gidalerroetan paisaiaren aldagaia txertatu, eskuduntza duten administrazioen artean koordinatuz.
- e) Elementu hauei balioa ematera bideratutako berrerabilpen eta erabilera berrietara egokitzeko plan bat sustatu, eskuduntza duten administrazioekin elkarlanean.
- f) Dauden eraikin tradizional edota apartekoak euren udal planeamenduan integratu, aurretik landutako udal-katalogo baten bidez. Era berean, haien birgaitzea eta erabilera berritzearen, eta onartutako eraikitze-materialei eta hirigintza-zerbitzuei dagozkien irtenbideen arautegia gehitu.
- g) Donostialdeko E.F.aren eskalan, eremu funtzionalaren historia bizi berriari lotutako ondare industria-ondareko elementuen mantenu, hobetze, balioan jartze eta hedapenei helduko dien plan bat landu.

h) Babestu eta mantendu beharrekoak diren elementu eta bideak, eta zehaztapen hauek aplikagarriak izango dituztenak honako hauek dira:

KORRIDOREAK

– CO.1 ORIA BEHEKO KORRIDOREA

GR-34

San Salvador eliza (Usurbil).

Atxega jauregia (Usurbil).

Lasarteko zubibidea (Lasarte-Oria), Plazaolako trena.

– CO.2 ANDOAIN - URNIETA KORRIDOREA

Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea)

Santa Leokadia basiliza (Urnieta).

Plazaolako trena eta bide berdea (Leitzaran, Gr-121).

Larganda gotorlekua (Urnieta).

San Migel eliza (Urnieta).

– CO.3 URUMEA BEHEKO KORRIDOREA

Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea)

Zikuñagako Amaren basiliza. (Hernani).

– CO.4 OARSOALDEKO KORRIDOREA

PR-GI 1005 Errenteria.

Arditurriko bide berdea

– CO.5 IRUNGO KORRIDOREA ETA HIRIGUNEA

Donejakue bidea (kostako ibilbidea), Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea), Donejakue zubia (Bidasoaren gainean).

Alatrista dorretxea (Irun), Gazteluzar gaztelua (Irun), Urdanibia jauregia (Irun).

Santa Elena basiliza (Irun), Junkal eliza (Irun).

Gaigain gotorlekua, Pika Dorrea eta Irungo telegrafia optiko dorrea (Irun).

GR 11, GR121 Ugaldetxo.

Bidasoako Bide berdea.

ITSASBAZTERREKO LERROKADURAK

– AC.1 MENDIZORROTZ (IGELDOKO KOSTALDEA)

Donejakue bidea (kostako ibilbidea).

Mendizorrotz gotorlekua (Donostia).

Igeldo mendiko funikularra. (Donostia).

GR-121 (Gipuzkoari bira).

Igeldo mendiko dorrea. (Donostia).

– AC.2 MENDIZORROTZ - BORDATXO MENDIAK

Donejakue bidea (kostako ibilbidea).

Aingeru Zaindariaren basiliza. (Donostia).

GR-121 (Gipuzkoari bira).

GR-34.

– AC.3 JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (KOSTALDEA)

Albaola (Euskal Itsas faktoria). (Pasaia).

Donejakue bidea (kostako ibilbidea)

San Telmo gaztelua. (Hondarribia).

Santa Isabel gaztelua. (Pasaia).

San Telmo basiliza (Hondarribia).

Santa Barbara basiliza. (Hondarribia).

Higer Faroa (Hondarribia).

La Plata Faroa (Pasai San Pedro)

Senokozulua Faroa (Pasaia).

2020ko urriaren 23a, ostirala

- Arroka Haundieta gotorlekua. (Pasaia).
 Guadalupeko Amaren gotorlekua (Hondarribia).
 GR 121 E21.
 Erregearen Harriko begiratokia (Ulia mendia). (Donostia).
 Punta Cruces. (Pasaia).
 Pasaiaiko Talaia bokana.
 Jaizkibelgo dorreak. (Hondarribia eta Pasaia).
 Txangaxi dorrea (Pasaia).
 Higer Faroko aire libreko aztarnategia. (Hondarribia).
 Guadalupeko aire libreko aztarnategia. (Hondarribia).
 Almirantearen gotorlekua. (Pasaia).
- AC.4 JAIZKIBEL - ULIA MENDIAK (BARNEKALDEA)
 Donejakue bidea (kostako ibilbidea)
 Santa Barbara eta Kalbario gurutzeen baseliza. (Hondarribia).
 Santa Barbarako paradorea (aurriak). (Hondarribia).
 Guadalupeko Amaren Santutegia. (Hondarribia).
 Guadalupeko gotorlekua (Hondarribia).
 San Enrique gotorlekua. (Hondarribia).
 GR-121 (Gipuzkoari bira).
 Erregearen Harriko begiratokia (Ulia mendia). (Donostia)
 Jaizkibelgo dorreak. (Hondarribia eta Pasaia).
ITSASERTZEKO BADIAK ETA HIRIGUNEAK
- BU.1 DONOSTIAKO BADIA
 Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
 Urgull gaztelua. (Donostia).
 Artzai Onaren katedrala (Donostia).
 Santa Klara baseliza (Donostia).
 Igeldo mendiko funikularra. (Donostia).
 GR-121 (Gipuzkoari bira).
 GR-34.
 Miramar Errege jauregia. (Donostia).
 Paseo Berria (Donostia).
 Haizeen orrazia (Donostia).
 Kursaal zubia. (Donostia).
 Donostiako kaia.
 Donostiako telegrafia optiko dorrea.
 Urgull. (Donostia).
- BU.2 DONOSTIAKO INGURABIDE PERIFERIKOA
 GR-121 (Gipuzkoari bira).
 GR-34.
- BU.3 PASAIAKO BADIA
 Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
 Miserikordiako Amaren eta Bidai Onaren konbentua. (Erreterria).
 San Roke baseliza. (Pasaia).
 Santa Ana baseliza. (Pasaia).
 Renteriolako burdinola. (Erreterria).
 GR-121 (Gipuzkoari bira).
 San Juan Bataiatzailea eliza. (Pasaia).
 San Pedro eliza. (Pasaia).
 Villaviciosa jauregia. (Pasaia).
 Gotorleku hondarrak. (Pasaia).

2020ko urriaren 23a, ostirala

- San Sebastian dorrea. (Pasaia).
Arditurriko bide berdea.
- BU.4 TXINGUDIKO BADIA
GR-121 (Gipuzkoari bira).
Sainduako basiliza. (Hondarribia).
Santa Maria Magdalena basiliza. (Hondarribia).
ITSASBAZTER-AURREKO MUINODUN ERLIEBEAK
- PR.1 ORIA ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEAK
Zabalaga baserria (Chillidaleku). (Hernani).
San Juan Bataiatzailea eta San Sebastian Oriamendiko basiliza. (Donostia).
San Martín Sastiako basiliza. (Hernani).
GR-34.
Oriamendi mendia eta gotorlekua. (Donostia).
- PR.2 OIARTZUN ETA URUMEA ARTEKO HIRIEN KANPOALDEKO GUNEAK
ITSASBAZTER-AURREKO MUINODUN ERLIEBEAK
Ametzagaña gotorlekua. (Donostia).
Ametzagaña aisia-parkea. (Donostia).
PR-Gi 1005
Erreterria.
ITSASADARRAK ETA PADURAK
- RM.1 BIDASOAKO ITSASADARRA ETA PADURAK
Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea).
Plaiaundi (Irun).
Bidasoako bide berdea.
- RM.2 ORIAKO ITSASADARRA
Mapil untziola (Usurbil)
Urdaiaga dorretxea (Usurbil).
Sariaundi baserria (Usurbil).
GR-34.
MENDI-OINEKO HEGALAK ETA HARANAK
- P.1 JAIZKIBELGO MENDI-OINA
Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
Nuestra Señora de Gracia basiliza. (Hondarribia).
Nuestra Señora de Monserrat basiliza. (Hondarribia).
San Salvador de Agirre basiliza. (Oiartzun)
Donejakue basiliza. (Hondarribia).
Donejakue basiliza. (Lezo).
- P.2 OIARTZUNGO HARANA
Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea)
Azkue dorretxea. (Oiartzun).
Larre dorretxea. (Oiartzun).
Oiartzabal Haundi dorretxea. (Oiartzun).
Pagoa dorretxea. (Oiartzun).
Aran dorretxea. (Oiartzun)
Oianlekuko cromlecha. Altzibartik (Oiartzun)
Artikutzako tren
GR T2.
San Esteban eliza. (Oiartzun).
Iturriotz dorrea (Oiartzun).
Arditurriko bide berdea.

2020ko urriaren 23a, ostirala

BIGARREN MAILAKO ELEBAZIOAK

- ES.1 BURUNTZA - SANTA BARBARAKO MENDIAK
 - Santo Cristo de Azkorte basiliza. (Urnieta).
 - Plazaola trena
 - Santa Barbara gotorlekua. (Hernani).
 - Buruntza herri harresitua. (Andoain).
 - Aitzbeltzeko telegrafia optiko dorrea (Madril-Irun lerroa). (Andoain).
 - Lasarteko zubibidea.
 - ES.2 GOIBURUKO MUJNOA
 - Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea).
 - San Esteban basiliza. (Usurbil).
 - Plazaola bide berdea (Lietzaran, GR-121).
 - ES.3 SANTIAGOMENDI - SAN MARKOKO MENDIAK
 - Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea)
 - Santiagomendi basiliza. (Astigarraga).
 - San Marko gotorlekua. (Erresteria).
 - Txoritokieta gotorlekua. (Astigarraga).
 - Aldura Mendia. Igoera Listorretatik (Erresteria).
 - Lau Haizeta parkea.
 - PR-Gi 1005 Erresteria.
 - Santiagomendiko aire libreko aztarnategia. (Astigarraga).
 - ES.4 URKABE - SAN MARTZIALGO MENDIAK ETA HARANAK
 - Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea).
 - Aranzate dorretxea. (Irun).
 - Ibarrola dorretxea. (Irun).
 - San Felipe eta Santiago de Andravaque basiliza. (Oiartzun).
 - San Martzial basiliza. (Irun).
 - Beloaga gotorlekua. (Oiartzun).
 - GR 11.
 - GR-121 Ugaldetxo.
 - Igoera Beloagako gaztelura.
- BARNEALDEKO MENDIAK
- M.1 AIAKO HARRIA
 - Artikutzako trena.
 - Pagogaña gotorlekua. (Irun).
 - Oianleku. (Oiartzun).
 - M.2 AIAKO HARRIAREN IPARRALDEKO MENDIAK
 - Oianlekuko cromlecha. Altzibardik (Oiartzun).
 - GR 11
 - GR T2.
 - GR-121 Ugaldetxo
 - Aldura Mendia. Igoera Listorretatik (Erresteria)
 - Arditurriko bide berdea.
 - Irugurutzetako meatze-kotoa (Irun).
 - Ozenziyo basiliza. (Oiartzun).
 - Artikutzako trena.
 - Arditurriko meatzeak. (Oiartzun).
 - M.3 AÑARBE MENDIA
 - GR-121 Ugaldetxo

- M.4 URUMEA MENDIA
GR-121 Ugaldetxo
Donejakue basiliza (Hernani).
- M.5 ADARRA MENDIA ETA LEITZARANGO HARANA
Adarra mendia. Igoera Besabitik.
Plazaola bide berdea (Leitzaran, GR-121)
- M.6 ANDATZA MENDIA
Urdaiaga dorretxea. (Usurbil).
San Esteban basiliza. (Usurbil).
GR-34.

2.- Paisaia aldetik garrantzia duen Kultura-ondarea hobetu, zaharberritu eta balioa ematea (P.M.1).

a) Errehabilitazioa behar duten eta Katalogoan zehazten diren ondarearen elementu desberdinen paisaia-integrazioaren hobekuntza eta egokitzapena sustatu. Birgaitze hori arlo horretan eskumena duten sailen mende egongo da, eta, horretarako, paisaia-irizpidea txertatzea gomendatzen da, baita haien gertueneko inguruaren (espazio libreak, sarbideak, landaretza, zuhaitzak...) egokitzapena ere, ikuspen-ingurua eta paisaia-balioa indartzeko asmoz. Garrantzitsua da ondasuna eta honen lurralde-inguruaren arteko harremana islatzeko beharra nabarmentzea, bai kultura-ondasunaren babeserako, bai honen inguruan dagoen espazioaren antolamendu eta erabileren programaziorako.

b) Egonkortzeko soluziobide teknikoak zehaztuko duten azterlanak egin, hondatze-abiadura gelditu ahal izateko.

c) Argi artifizial ez-zuzenaren instalazio bidez zehaztuz eta zuhaixken landaketei balioa eman ingurumarian, integratutako azpiegiturak ere kokatuz.

d) Hobetu edo zaharberritu, eta balioa eman beharrekoa den Paisaia aldetik garrantzia duen ondarea osatzen duten esparruak, eta zehaztutako hauek lehentasunez aplikagarriak izango dituztenak honako hauek dira:

- Mendizorrotz gotorlekua. (Donostia). AC.1 eta AC.2
- Igeldo mendiko dorrea. (Donostia). AC.1 eta AC.2
- Bigarren dorrea. (Pasaia). AC.3
- Londres baserria. (Pasaia). AC.3
- Santa Isabel gaztelua. (Pasaia). AC.3
- Jaizkibel draga. (Pasaia). AC.3
- Higer faroa. (Hondarribia). AC.3
- La Plata faroa. (Pasaia). AC.3
- Senokozulua faroa. AC.3
- Almirantearen gotorlekua. (Pasaia). AC.3
- Pasaiaiko Talaia bokana. AC.3
- Jaizkibelgo dorreak. (Hondarribia). AC.3 eta AC.4
- Txangaxi dorrea. (Pasaia). AC.3
- Donostiako telegrafia optiko dorrea. BU.1
- Santa Maria Eliza (Donostia). BU.1
- San Bizente Eliza (Donostia). BU.1
- San Telmo Museoa (Donostia). BU.1
- Iturriotz dorrea (Oiartzun). P.2
- Santa Barbara gotorlekua. (Hernani). ES.1
- Aitzbeltzeko telegrafia optiko dorrea (Madril-Irun lerroa). (Andoain). ES.1
- Endarlaza dorrea. (Irun). M.1
- Irugurutzeta labeak. (Irun). M.2

12. artikulua.– Paisaia naturalei dagozkien zehaztapenak.

1.– Baliabide fisiografikoak mantentzea (N.C.1).

- a) Antena igorleen eta kablerik gabeko seinaleen errepikagailuen inpaktua gutxiagotzea ikuspegi-arroetan, hondoetan edo mugarri adierazgarrietan. Horretarako, ahal izanez gero, horiek pilotzea bultzatuko da edo gailur-lerroetatik kanpo kokatzea. Era berean, antenen eta kontrol eraikinen tratamendu estetikoa ziurtatuko da, ikuspegi-hondoetan hobeto integratzeko.
- b) Aparteko mendi-tontorretan baso-landaketak debekatzea.
- c) Mantendu beharrekoak diren mendi, gailur eta mendilerro bikain, eta bestelako elementu fisiografiko eta geologikoak, eta zehaztapen hauek bereziki aplikagarriak izango dituztenak grafiatuta daude «Paisaiaren Kalitate Helburuen Mapa I»an.

2.– LPParen «Hiri Multzoak eta Hiri Inguruko Landa» eremuan ez dauden bertako formazio zuhaizkarak mantentzea (N.C.2)

- a) E.F.ean dauden zuhaitz autoktonoen sailak euren naturalitate edo paisaiaren kalitatea aldatuko duten giza-alterazioengandik babestu.
- b) Korridore eta hiri inguruko espazioetan kokatutako landaretza naturalaren baso-unadak mantentzea sustatu.
- c) Babestu beharrekoak diren zuhaitz autoktonoen multzoak eta zehaztapen hauek lehentasunez aplikagarriak izango direnak «Paisaiaren Kalitate Helburuen Mapa I»ean grafiatuta daude.

3.– Ur-lamina nagusien eta atxikitako landaretzaren paisaia mantentzea (N.C.3)

- a) Hirigintza-baliabideetan babeserako irizpideak betetzea sustatu.
- b) Ez baldin badaude, ibai-ubide, urtegi eta putzu eta gertueneko eragin-eremuen Planeamenduan babeserako neurriak ezarri, ekologia-konektatzaile eta paisaia-balio gisa duten interesagatik.
- c) Ibai-zatiak afektatu edo zeharkatzen dituzten obra publikoak paisaia aldetik integratzeko neurriak txertatu.
- d) Ibai- eta erreka-bazterretako berezko landaretza, bere naturalitate edo paisaiaren kalitatean aldaketa eragiten duten giza-ekintzetatik babestu, ezarrita dauzkan erabilerak mantendu.
- e) Ibai-bazter eta hirigintza garapen berrien arteko trantsiziozko espazio libreen erreserba bultzatu.
- f) Paisaia mantendu beharrekoa den ur-lamina eta hauei atxikitutako landaretza, eta zehaztapen hauek aplikagarriak izango direnak honako hauek dira:
 - Santa Barbarako putzua. (Hernani). CO.2 eta ES.1
 - Bidasoako estuario eta padurak. CO.5 eta RM.1
 - Oriako itsasadarreko padurak. AC.2 eta M.6
 - Urumeako itsasadarra. BU.1 eta BU.2
 - Pasaiaiko itsasadarra. BU.3
 - Bidasoako estuario eta bokalea. BU.4
 - Atsobakarreko hezegunea. (Lasarte-Oria). PR.1
 - Oriako itsasadarreko padurak: Aginaga, Itzao eta Sariako erriberak. RM.2
 - Landarbasoko baltsa (Donostia). M.2
 - Malbazargo putzua (Errenteria, Hernani). M.2 eta M.3
 - Añarbeko urtegia (Errenteria, Oiartzun). M.3

4.– Kostaldeko paisaia bikainak mantentzea (N.C.4).

- a) Kostaldeko paisaia babestu, bere berezitasunei kasu eginez, elementu apartekoak babestuz (hondartza, labar, itsasmutur eta muinoak, eta abar), tokiari ez dagozkion elementu eta jardueren ezarpena mugatuz.
- b) Hondartzen inguruan paisaiaren babesa eta hobekuntza sustatu, erabilerak eta jarduerak antolatuz, ikus-inpaktu negatiboa duten elementuen presentzia ekidinez (antenak, publizitatea, isolatutako eraikuntza berriak, egoera txarrean dauden eraikin eta instalazioak, eta abar) eta gertuko espazio publikoaren diseinua eta mantenua bereziki zainduz.
- c) Natura-espazioekin kontaktuan dauden hondartzen dinamika naturala bultzatu, geratzen diren paisaiak (duna-paisaiak...) urbanizatzetik eta azpiegiturretatik babestuz.
- d) Mantendu beharreko kostaldeko paisaia bikainak, eta zehaztapen hauek aplikagarriak izango direnak honako hauek dira:
 - Donostiatik Oriorako labarrak eta Agitiko hondartza. (Donostia).AC.1
 - Donostiako Badia-Kontxa. AC.1 eta BU.1
 - Jaizkibelgo labarrak. Hondarribia, Pasaia. AC.3
 - Uliako labarrak, Donostia eta Pasaia artean. AC.3
 - Pasaiaiko itsasadarreko labarrak eta bokana. AC.3
 - Donostiako Badia-Zurriola. AC.3 eta BU.1
 - Txingudiko badia. AC.3 eta BU.4
 - Jaizkibelgo erroitza. AC.3
 - Donostiako Badia-Zurriola. BU.1
 - Txingudiko badia. AC.3 eta BU.4
 - Hondarribiko kostaldea. BU.4

5.– Zuhaitz apartekoak mantentzea (N.C.5)

- a) Udal eta Eremu Funtzionalaren eskalan Zuhaitz Apartekoen Katalogoak egin.
- b) Seinaletika, eskupaper eta eskolako hezkuntza-programa bidez zuhaitz hauen historia eta balioak hedatu.
- c) Udal ordenantzetan babeserako neurriak ezarri.
- d) Mantendu beharreko zuhaitz apartekoak, eta zehaztapen hauek aplikagarriak izango direnak honako hauek dira:
 - Hernaniko ginkgoa. CO.3
 - Nere Borda parkeko intsinis pinua. (Hernani). CO.3
 - Berioko artea. BU.2
 - Teresategiko pinoi-pinu aparasolatuak. (Lasarte-Oria). PR.1

6.– Paisai naturala berroneratu eta hobetzea (N. R. 1).

- a) Bertako landaretzaren berreskuratzea sustatu antzinako landare-estalkia galduta dagoen kostaldeko esparruetan.
- b) Ibaiertz eta paduren leheneratze-planak sustatu. Ur-bazterreko basoak berreskuratu narriaturik dauden ibai-zatietan eta berreskuraketa hori ezinezkoa egingo duten presio sozioekonomikorik jasaten ez duten zatietan. Ur-bazterretan ohikoak diren zuhaitz-espezieen landaketa sustatu.
- c) Ur-ibilguak ahal den neurrian naturalizatu, bideragarritasunaren arabera, bioingeniaritzako teknikak erabiliz.
- d) Uren kalitate ekologikoa berreskuratu.
- e) Azpiegitura grisek ur-ibilguan eragiten dituzten ikuspen-inpaktuak paisaia aldetik integratu.

2020ko urriaren 23a, ostirala

- Hirigintza planeamenduak ibaietako hiri-frenteak kontu handiz tratatu beharko ditu, euren izaera goratzeko eta paisaia-balioa indartzeko.
 - Hirigintza planeamenduak espazio libreetarako lagapen-lurzoruak lehentasunez ibai-korridore hauetan eta euren inguruan kontzentratuko ditu.
- f) Estalita dauden ibai-ibilguen berreskuratzearen bideragarritasna baloratu, inguruan integratzearekin batera.
- g) Eremu funtzional guztian landaretza aloktonoaren espezieak deuseztatzeko estrategia bat ezarri, bereziki ibai-bazterretan.
- h) Gaur egun andeatuak dauden edo leheneratzea beharrezkoak diren paisaia naturalak eta zehaztapen hauek aplikagarriak izango direnak, lehentasunez bisibilitate handia daukaten zatiak dira.

13. artikulua.– Paisaiaren zehaztapenen aplikazioa eta garapena.

Paisaiaren zehaztapenak lurralde- eta hirigintza-planeamendurako aurreikusitako baliabideen bidez garatuko dira.

II. ERANSKINA, IRAILAREN 22KO 154/2020 DEKRETUARENA. HORREN BIDEZ, BEHIN BETIKO ONARTZEN DA DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA, PAISAIAREN ZEHAZTAPENEI BURUZKOA

DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ALDAKETAN INTEGRATZEARI BURUZKO LABURPENA. INGURUMEN-ALDERDIEN PAISAIAREN ZEHAZTAPENEI BURUZKOA DA, INGURUMENAREN GAINEKO ONDORIOEN JARRAIPEN-NEURRIAK BARNE, INGURUMEN-EBALUAZIOARI BURUZKO ABENDUAREN 9KO 21/2013 LEGEAREN 26.2 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ONDORIOETARAKO

1.– Ingurumen-alderdiei buruzko laburpena.

a) Ingurumen-alderdiak planaren aldaketan nola txertatu diren adieraztea.

Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren (LPP) Aldaketaren helburua da paisaiaren arloko zehaztapenak LPPren antolamendu-arauetan sartzea, gomendio gisa.

Aldaketa hori Eusko Jaurlaritzak sustatu du, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren akordioak garatzeko eta lurralde-plangintzan islatzeko.

Eremu Funtzionaleko paisaia aztertu, karakterizatu eta baloratu ondoren, paisaia-unitate batzuetan, paisaia-interes bereziko eremuetan eta paisaia-kalitatearen helburuetan amaitu zen. Hori guztia jasota dago Donostialdeko eta Bidasoa Behereko EFko Paisaiaren Katalogoan, eta honako zehaztapen hauen oinarri izan da.

Aldaketak paisaia guztiak hartzen ditu kontuan, eta, beraz, eremu funtzional osoa hartzen du. Eremu bakoitzaren balorazioaren eta azterketa- eta partaidetza-prozesuaren ondoren ateratzen diren helburuen arabera, eremu bakoitzari hainbat gomendio ematen zaizkio, eremu horren babesaren, leheneratzearen edo kudeaketaren arabera. Horregatik, paisaiaren zehaztapenen helburua izan daiteke detektatutako balio bikain eta bereziei eustea, baita eremu degradatuak berreskuratzea edo garatu beharreko esparruak kudeatzea ere.

Natura-ondarearekin bat datozen helburu nagusiak honako hauek dira: kultura-, natura- eta paisaia-ondare garrantzitsua kontserbatzea, hobetzea, leheneratzea eta/edo hari balioa ematea, baita herritarrek paisaia eskuratzea eta gozatzea ere. Aldaketaren helburu guztiak bat datoz ingurumen-helburuekin.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko uztailaren 9ko Ebazpenaren bidez eman zen aldaketaren irismen-dokumentua.

- b) LPParen aldaketan, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak (ingurumen-adierazpen estrategikoa barne) eta, hala dagokionean, prozesuan sortu diren desadostasunak nola hartu diren kontuan adieraztea.

LPParen aldaketak ingurumen-azterketa estrategikotik (IAE) eratorritako alderdiak biltzen ditu, baita jendaurreko informazioaren emaitzatik eta egindako kontsultetatik eratorritakoak eta horiek kontuan hartzeko moduetatik eratorritakoak ere, honela:

b.1.– Ingurumen-azterketa estrategikotik eratorritako alderdien integrazioa.

LPParen aldaketa egiteko prozesuarekin batera, 2019ko uztailan, ingurumen-azterketa estrategikoa arrunta idatzi zen. Azterketa honek justifikatzen du irismen-dokumentuko ingurumen-irizpideak integratzea, irismen-dokumentuaren arabera helburu estrategikoak horiekin bat datozen aldaketa-helburuekin erlazionatuz eta helburu bakoitzaren banakako ebaluazioa eginez. Irismen-dokumentuaren helburuak honako hauek izan ziren: garapen irisgarria bermatzea, ingurune naturala kontserbatzea eta leheneratzea, klima-aldaketaren eragina mugatzea eta airearen, lurzoruen eta uraren osasungarritasuna bermatzea. Aldaketaren helburu guztiak bat datoz aipatutako helburu estrategiko batekin edo batzuekin.

Gainera, ingurumenaren egungo egoera, aldaketaren ondorio esanguratsuak eta prebentzio-, zuzenketa- eta gomendio-neurriak aztertu ziren.

Bi aukera ere aztertu ziren: 0 (aldaketa ez aplikatzea) eta 1 (aldaketa aplikatzea), aukerak baloratzeko irizpideen sintesia barne, eta ondorioztatu zen 1. aukera 0 baino positiboagoa dela ingurumenerako.

Zehaztapen batzuk Natura Sareko espazioei buruz aurreikusten direnez, ingurumen-azterketa estrategikoak zehaztapenen ondoriozko jarduketa posible bakoitzaren azterketa zehatza jasotzen du. Gainera, kontuan hartu behar diren zenbait irizpide azpimarratzen dira: ez da arriskuan jarriko Natura 2000 Sarea kalifikazioa ematea eragiten duen elementurik; eremu horiei dagokien araudia zorrotz betetzen dela zainduko da; eta, espazio horiei dagozkien jarduketa bakoitza eskala egokian ebaluatuko da.

Azkenik, IAE ingurumena zaintzeko programa batekin amaitzen da.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-dokumentu estrategikoa formulatu zen. Aipatutako dokumentuak adierazten duen bezala, zehaztapenek izaera positibo nabarmena dute, paisaien hobekuntza eta kontserbazioa sustatzen baitute; beraz, horien emaitzak eremu funtzionalaren ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzen du. Ingurumen-azterketa estrategikoa arruntari zenbait puntu erantsi behar zaizkiola gaineratzen du: lurzorua behar den kasuetan baino ez okupatzea, Eremu Funtzionalaren konektibitate ekologikoa, biodibertsitate biologikoaren eta intereseko landarediaren kontserbazioa, uren babesa eta lurzoruen ezaugarri edafikoak, eta kultura-ondareari buruzko araudian xedatutakoa betetzea.

Bestalde, ingurumen-adierazpen estrategikoak adierazten duenez, plana garatzeko egiten diren planen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa egiteko, lurraldearen baldintzatzaileak eta irismen-dokumentuan adierazitako ingurumen-irizpideak hartu beharko dira kontuan. Ondorengo garapen-faseetan inaktuak baloratzeko eta neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzeko beharrezko xehetasun-maila lortu ahal izango dela ulertzen da.

b.2.– Informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak integratzea.

Jendaurrean jartzearen emaitzetatik honako aldaketa hauek egin ziren:

- Aldaketaren dokumentazio grafikoan.

Lurralde Plan Partzialaren «hiri-taldeak eta hiri-ingurukoak» eremutik kendu dira Paisaiaren Kalitatearen Helburu (PKH) hauek zituzten eremuak:

A.C.1- Nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia garrantzitsua kontserbatzea paisaian.

N.C.1- Baliabide fisiografikoak kontserbatzea.

N.C.2- Bertako zuhaitz-formazioak kontserbatzea.

Erabat ezabatzen da PKH UC.3 hiri-kokalekuetan dagoen landare-paisaia kontserbatzea, azterketa eskala xeheago batera eramateko.

Plazaola trazadura Lasarte-Oriaraino zabaltzen da.

- Aldaketaren dokumentazio idatzian.

Oro har, antolamendu-arauen artikuluen idazketa hobetu da, eta mapetan zehazki adierazitako zerrenda generikoak ezabatu dira; era berean, udalek adierazitakoa kontuan hartu da, unean uneko kultura-ondareko elementuak gehituta.

- Ingurumen-azterketa estrategikoaren dokumentazio idatzian.

Natura-ondarean inpaktua izan dezaketen jarduketak identifikatu ditu.

IAEren kontsulten emaitzetatik, jendaurrean jarritako alegazioekin bat datozen eta aurreko puntuan garatu diren aldaketak egin dira.

Birgaitze- edo hobetze-obretan, batez ere ondare-elementuak eta haien inguruneak, birgaitze hori sail eskudunen aginduen mende egongo dela adierazi da, eta ingurumenaren aldetik eskala egokian ebaluatuko dela natura-ondareak aitortutako eremuetan diseinatzen den jarduera oro.

Aldaketa antolatzeke arauen idazketa hobetu da, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerei dagokienez.

Irungo Udalari erantzunez, udalerriko zenbait kultura-ondare elementu zuzendu dira; zehazki, Torreón de Pica, Santiago zubia Bidasoa gainean eta Junkaleko eliza gehitu dira; eta, Gebara dorretxea kendu da.

c) Hautatutako aukera hautatzeko arrazoiak adieraztea, kontuan hartutako alternatibei dagokienez

Aipatu bezala, hauek dira aukerak:

- 0 aukera: Zehaztapenen dokumentua ez idaztea.
- 1 aukera: Paisaiaren zehaztapenak LPPean sartzea.

1. aukerak paisaiaren eta, beraz, natura- eta kultura-ondarearen aldeko estrategiak abian jartzea dakar. Estrategia horiek garrantzitsuak dira, besteak beste, hirigintza-garapen berrien kokalekuak paisaia-alderdien arabera aztertzea, lurzoruak ez artifizializatzea beharrezkoa ez den moduan, edo intereseko landaredia mantentzea, etab.

Bestalde, 0 aukeran lurraldea antolatzeko tresna hori ez izateak hirigintzako jarduketek inpaktu handiagoa izatea ekarriko luke.

2.– Planaren aldaketa aplikatzeak ingurumenean dituen ondorioen jarraipena egiteko hartutako neurriak.

Plana aplikatzeak ingurumenean izango duen afekzioa minimizatzeko hartu diren neurri babesle eta zuzentzaileek erreferentzia egiten diote lurzoruaren kalitatea, ondare geologiko interesgarria eta lur gaineko eta lurpeko urak babesteari; baita arrisku naturalak, inpaktu akustikoak, klima-aldaketa eta lehengaien eta argiztapenaren kontsumoa saihesteari ere; nekazaritzako eta abeltzaintzako inguruneetan eta naturagune babestuetan neurri espezifikoak ezartzeari; eta, azkenik, hondakinak kudeatzeari eta mugikortasuna hobetzeari.

LPParen denbora-irismena 16 urterako dimentsionatu da. LPP 2016an onartu zen behin betiko, eta, beraz, 2032rako berrikustea aurreikusten da. Estrapola daiteke hori dela paisaiaren zehaztapenen denbora-irismena. Hala ere, paisaia-unitateen mugaketa denboran ahalik eta gehien irauteko irizpideekin egin da, lurzoruaren erabileren aldaketek berrikuspena eragiten dutenean izan ezik.

2032ra arte aurreikusten da Ingurumena Zaintzeko Plan bat Eremu Funtzionalan, eta prozesu honetan oinarritu da:

- Aldaketa honetan zuzenean inplikaturako jasangarritasun-printzipioak identifikatzea.
- Jasangarritasun-faktore horien adierazle batzuk ezartzea.
- Ikuskapenaren agintaritza arduraduna zehaztea, baita ikuskapenaren unea eta maiztasuna ere.

Hauek dira ingurumena zaintzeko programan aurreikusitako jarraipenaren xede diren alderdiak:

- Baliabide hidrikoak babestea.
- Lurzorua babestea.
- Biodibertsitatea mantentzea.
- Giza habitataren kalitatea hobetzea.
- Hondakinen ekoizpena minimizatzea.
- Baliabide estetiko-kulturalak babestea.
- Mugikortasun jasangarria sustatzea.
- Arrisku naturalak minimizatzea.

Alderdi bakoitzari adierazle bat edo batzuk esleitzen zaizkio, baita jarraipen hori egiteko ardua duten agintariak ere. Proposatutako jarraipen-adierazleak adierazgarriak dira, eta zehatzago zehaztu beharko dira Aldaketa garatzeko ondorengo faseetan. Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan eta Ingurumeneko Esparru Planean biodibertsitateari eta paisaiari buruz adierazitako adierazleak jaso dira. Hauek dira adierazle orokor horiek:

- Paisaia babesteari eta hobetzeari heltzen dioten eta izapidetu eta onartu diren plangintzaren garapen-figuren kopurua.
- Beren lurralde-antolamenduan paisaiaren aldagaia espezifiki kontuan hartzen duten Eremu Funtzionaleko hirigintza-planen kopurua.
- Eremu Funtzionalean idatzitako paisaiaren ekintza-planen kopurua.
- Eremu funtzionalean paisaia komunikatzeko eta hedatzeko prozesuen eta kanpainen kopurua.
- Kalitate baxuko eta oso baxuko paisaia-unitateen kopurua, guztizko kopuruarekiko.
- EAEko lehentasunezko jarduketa-paisaietan kalitate ertain eta altuko paisaia-unitateen kopurua.
- Babes-figuraren baten azpian balio ertaina eta handia duten paisaia-unitateen kopurua.
- Paisaia leheneratzeko neurriak dituzten ingurumen-inpaktuaren ebaluazioen (IIE) kopurua, onetsitako IIE guztiekiko.
- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetan paisaia leheneratzeko kapituluak gauzatzearen kostua, leheneratze-lanak gauzatzearen guztizko kostuari dagokionez.
- Paisaian inpaktua duten fokuen kopurua paisaia-unitateetan.

Ingurumena Zaintzeko Programa LPP garatzen duten proiektu zehatzen ingurumen-inpaktuaren azterketan egiten den zaintza-programa zehatzagoan sartu beharko da.

Obraren jarraipena egiteko izendatzen den ingurumen-zuzendaritza arduratuko da, aldi-aldi egiten dituen txostenetan, ingurumen-azterketa estrategiko honetan ezarritako adierazle emaitzak jasotzeaz, baita proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketan ezartzen diren adierazle espezifikoak jasotzeaz ere. Gutxienez, txosten bat egingo da abiapuntuko egoeraren datuekin, eta azken txosten bat obrak egin ondorengo egoerarekin.